

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2903

AGINDUA, 2014ko ekainaren 18koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, irakurketa sustatzeko eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegi publikoen zerbitzuak erabiltzeko diru-laguntzak arautzeko eta horien deialdia iragartzeko dena, 2014. urtean.

Euskadiko Liburutegien urriaren 26ko 11/2007 Legearen bidez sortu zen Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea, eta sare horri dagokio, besteak beste, liburutegiei laguntza-programak eta -zerbitzuak ezartzea, nagusiki informatika-sareak antolatzeko, irakurketa eta liburutegien erabilera sustatzeko kanpainak bultzatzeko eta funtsez edo bestelakoez hornitzeko.

Bestalde, apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, dio Liburutegi Zerbitzuaren eskumenekoa dela Euskadiko liburutegi-sistemaren planifikazioa, funtzionamendua eta koordinazioa garatu eta betetzea, baita irakurketa sustatzeko neurrien diseinua ere.

Hori dela eta, eta jakinik haurtzaroan eta gaztaroan errazago hartzen dela liburuekiko zaletasuna eta liburutegiak erabiltzeko ohitura, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak uste dut lehentasuna duela batez ere herritarren parte horren beharrezan erantzuteak.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

Agindu honen xedea da irakurketa sustatzeko eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegi publikoen zerbitzuak erabiltzeko diru-laguntzen 2014ko deialdia arautzea.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Agindu honetan araututako diru-laguntzak 258.000 eurokoak izango dira, gehienez, eta Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean diren Aurrekontu Orokorren kontura izango dira.

Zenbateko hori handitu ahal izango da agindu honen xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Agindu honetako laguntzak jaso ahal izango dituzte, batetik, liburutegi publikoen titular diren EAEko udalek, eta, bestetik, EAEko udal liburutegi publikoen arloko eskumenak dituzten edo arlo horretako egitekoak esleituta dituzten toki-erakundeek, baldin eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen barruan badaude.

Ezingo dute diru-laguntzarik eskatu laguntza publikoak lortzeko zehapen administratibo edo penalik duten erakundeek, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik dutenek.

Halaber, ezingo dute agindu honetako diru-laguntzarik eskatu, kasuan kasuko zehapenak ezarritako epean, sexu-bereizkeria dela-eta zehapen administratibo edo penalik duten pertsona fisiko

zein juridikoek, ezta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen indarrez jarritako zehapenen ondorioz debeku hori dutenek ere.

Onuradunei diru-laguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea itzulketa- edo zehapen-prozedura oro, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo diru-laguntzengatik hasitakoak eta artean izapidetzen ari direnak, eta zergen arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla frogatzea.

4. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Erakunde interesdunek bitarteko elektronikoak erabili beharko dituzte prozedura horren izapideak eskatu, kontsultatu eta egiteko.

2.– Honako egoitza elektronikoa honetan daude eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak izapidetzeko zehaztapenak: «https://www.euskadi.net/ayuda_subvencion/-/2014/promocion_lectura/es/»

Eskaeraren osteko izapideak helbide honetan egingo dira, bide elektronikoz: <https://www.euskadi.net/y22-home/es/misgestiones>

5. artikulua.– Erakunde eskatzaileek eta/edo onuradunek bete beharreko baldintzak (eta obligazioak).

1.– Eska daitezkeen betebeharrak oro, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

2.– Alta emanda egotea Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren Hirugarrenen Erregistroan (erakunde onuradunentzat).

3.– Legez eratuta eta dagokien administrazioeko erregistroan edo erroldan behar bezala inskribatuta egotea.

6. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

Diruz lagundu ahal izango da 2014ko ekitaldian burutzen den eta hauek sustatzea helburu duen jarduera oro: batetik, irakurketa haur eta gazteen artean, eta, bestetik, Euskadiko Irakurketa Publikoko On Line Sarearen barruan txertatuta dauden liburutegi publikoko zerbitzuen erabilera.

Diruz lagungarritzat joko dira, besteak beste:

a) Profesionalen berariazko prestakuntzara bideratutako jarduerak, baina kanpo geratuko dira joan-etorri eta mantenu gastuak eta horietan parte hartzetik eratorritako gainerako dietak.

b) Haur- eta/edo gazte-irakurketako jarduera osagarriak (ipuinaren ordua, irakurketa-tailerrak eta abar).

c) Haur-eta/edo gazte-liburuaren erakusketa bibliografikoak, hizketaldiak eta abar antolatzea.

d) Haur-eta/edo gazte-literaturako lehiaketak antolatzea.

e) Haur eta gazteen artean liburua eta liburutegiak sustatzeko kanpainak.

Kanpo uzten da, berariaz, agindu honek aipatzen dituen helburuen barnean jarduera zehatzak burutzeko beharrezko ez den material bibliografikoa erostea.

Ezin izango dira diru-laguntza hauetara aurkeztu gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzen ez duten jarduerak.

7. artikulua.– Erakunde eskatzaileen betekizunak egiaztatzea.

1.– Eskarietan, berariaz adieraziko da laguntza eskatzen duten erakundeek baimena ematen diotela organo kudeatzaileari gainerako datu guztiak lortu edo egiaztatzeko, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoak dagozkion egiaztatze-, kontrol- eta ikuskatze-ahalmenak betetzea.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren aldaketa aplikatuz, eskabidean, honako betebeharrak bete direla egiaztatuko da, erantzukizunpeko adierazpen bidez:

a) Helburu berarekin beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako diru-laguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskatuz gero eta, hala badagokio, eskuratzuz gero, horren berri ematea.

b) Pertsona edo erakunde eskatzaileak egiztatu behar du ez dagoela laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzea eragozten dion administrazio- edo zigor-arloko zehapen baten pean, edo ez daukala horretarako legezko debekurik.

c) Sexu-bereizkeria dela-eta zigor administratibo edo penalik ez du izan behar pertsona edo erakunde eskatzaileak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen indarrez jarritako isunen ondoriozko debekurik ere.

d) Halaber, eskatzaileak adierazi behar du egiazkoak direla eskaeran eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak eta diru-laguntza jasotzeko betetzen dituela indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak.

Gainerako betebeharrak egiaztatzeko modua lehenago aipaturiko euskadi.net gune elektronikoan adieraziko da.

3.– Erregistratu gabe egonez gero Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Hirugarrenen Erregistroan, edota Erregistroan dauden bere bankuko datuak aldatu nahi baditu, eskabidearekin batera Eusko Jaurlaritzako hirugarrenaren altari buruzko agiria, aurkeztu beharko du.

8. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.

1.– Deialdi honetarako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

2.– Eskabideak bide elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira, agindu honen 4. artikuluko 3. puntuan zehaztutako egoitza elektronikoan.

3.– Erakunde eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkez dezakete, nahi duten eran. Halaber, prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, azaroaren 24ko 10/1982 Legearen, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoaren, 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatutako moduan.

4.– Eskabideari honako hauek erantsiko zaizkio:

a) Memoria labur bat, zeinetan bilduko baitira burutu beharreko jarduerak, eta proiektua egoki interpretatzeko interesgarri iriztitako elementu oro.

Liburutegi publikoak kudeatzeko eskumenak dituzten toki-erakundeek, eskumen hori egiaztatzeko, agiri bat erantsi beharko dute, aurretik hala egin ez badute eta baldintza beretan indarrean ez badago, behintzat.

9. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzari dagokio agindu honen bidez araututako diru-laguntzak kudeatzeko egin beharrekoak egitea.

10. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetako akatsak zuzentzea.

Eskabidea izapideak egiteko onartzeko eskatzen diren dokumentu batzuk falta direla edo horietan forma-akatsak daudela ikusiz gero, edo eskabidea balioesteko aurkeztutako dokumentazioan akatsak aurkituz gero, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari huts-egitea konpontzeko edo aginduzko dokumentuak aurkezteko, eta jakinaraziko zaio hori egiten ez badu haren eskabidean atzera egin duela edo izapidetzeko eskubidea galdu duela ulertuko dela; betiere, aurretik ebazpen bat emango da.

11. artikulua.– Eskaerak ebaluatzea.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzari dagokio aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzea, agindu honen 9. artikuluan xedatutakoaren arabera. Era berean, zuzendaritza horrek osatuko du ebazpen-proposamena eta, ondoren, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari igorriko. Bertan azalduko dira, hala badagokio, erakunde onuradun bakoitzari egokitutako diru-kopurua, ezetsitako eskabideak, arrazoia adieraziz, eta emandako diru-laguntzak modu egokian erabiliko direla ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen diren baldintza guztiak.

12. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa zehaztea.

1.– Agindu honen xederako bideratutako baliabide ekonomikoak onuradunen artean banatuko dira agindu honen kalkulu-eranskinean azaldutako sistema aintzat hartuz. Horretarako, haurren eta gazteen taldeak ezarri dira aurretik, eta horietan sartzen dira hainbat onuradun. Onuradun horiei balore homologatuak eta zuzentzaile-indizeak aplikatuko zaizkie; onuradunen udalerrietan zenbat eta biztanle gutxiago bizi, orduan eta handiagoak izango dira multzo horren baloreak eta indizeak.

2.– Aurreko hori guztia aplikatu eta gero, onuradunen batek 13.1 artikuluko ehunekoa gainditzen badu, aurrekontuaren gainean onarturiko gehieneko zenbatekoan ezarriko dira diru-laguntzak. Soberakinak gainerako onuradunen artean banatuko dira, kalkulu-eranskinean ezarritako sistemen arabera. Jardunbide hori behar adina aldiz errepikatuko da, eta aplikatu eta gero geratzen diren kopuruak aurretik lortutako kopuruei gehituko zaizkie. Jardun hori behar adina aldiz errepikatuko da, eta hori aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak aurretik lortutakoei gehituko zaizkie.

13. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa, mugak eta bateragarritasuna.

1.– Laguntza hauen xede diren jarduerak egiteko gastuen onartutako aurrekontuaren % 75erainokoa izan ahal izango da diru-laguntza. Gehieneko ehuneko hori mantendu egin beharko da amaieran justifikatutako kopuruekiko.

2.– Artikulu honen aurreko zenbakian zehaztutakoa gora-behera, erakundeari emandako diru-laguntza ezin izango da 30.100 euro baino gehiagokoa izan, inolaz ere.

3.– Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak dira beste instituzio publiko edo pribaturen batek helburu bererako ematen dituenekin, baldin eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Izan ere, gainfinantzaketarik gertatuz gero, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

14. artikulua.– Ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Aurkeztutako eskabideei buruzko ebazpena ematea Kultura, Gazteria eta Kiroletako sail-buruordeari dagokio, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindako ebazpen-proposamena ikusita, betiere.

2.– Prozedura ebazteko eta ebatzitakoa interesdunei jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, agindu hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

3.– Jakinarazpen gisa, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

4.– Epe hori amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

5.– Aurreko paragrafoan esandakoa gorabehera, agindu honen 9. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar bada, ebazpena emateko epea eten egingo da izapide horrek eskatzen duen bezainbat denboraz, jakinarazpena jaso eta horri erantzuteko epearen arabera.

6.– Aurreko paragrafoan aipatzen den ebazpenak ez dio administrazio-bideari amaiera ematen, eta, horren aurka, erakunde interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabete epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluei jarraikiz.

15. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan ezarritakoaren arabera araututako diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Hori dela eta, diru-laguntza eman zaiela aditzera ematen duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean ez badiote diru-laguntzari espresuki uko egiten erakunde onuradunek, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Jarduera aurrera eramatea, edo diru-laguntza ematea bidezko egiten duen egoeran egotea.

c) Diru-laguntza eman duen erakundeari justifikatzea emate hori eragin duten edo laguntzaz baliatzea eragin duten baldintzak betetzen direla eta jarduera bera aurrera eramanez dela.

d) Laguntza eman duen erakundeak egiten dituen egiaztapenen mende eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak burutzen duen ikuskaritzaren mende egotea, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura eskuratzen diren laguntza edo diru-laguntzei dagokienez. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziko neurrien mende ere egotea.

e) Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako diru-laguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea diru-laguntza eman duen erakundeari.

f) Diru-laguntza jasotzeko kontuan hartu zen edozein egoera objektiboren edo subjektiboren aldaketa oro jakinaraztea diru-laguntza eman duen erakundeari.

g) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Liburutegi Zerbitzua-ren babesa berariaz adieraztea, diru-laguntza honen ondorioz egiten diren jarduera eta dokumentu guztietan, bai eta horien publizitatean ere.

h) Sexismorik gabeko hizkera erabiltzea diruz lagundutako jarduerarekin lotutako ekitaldi guztietan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoari jarraituz. Gizon eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera estereotipaturik ez dagoela bermatzea.

16. artikulua.– Diru-laguntzen justifikazioa, likidazioa eta ordainketa.

1.– Diru-laguntza agiri bidez justifikatuko da 2014ko abenduaren 31 baino lehen.

2.– Justifikazio horiek bide elektronikoz aurkeztu beharko dira web-gune honetan: <https://www.euskadi.net/nirekudeaketak>

Diru-laguntza justifikatzeko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Burututako jarduerak justifikatzeko memoria.

b) Egindako gastuak justifikatzeko, kontu-hartzailearen edo, hala badagokio, idazkari kontu-hartzailearen egiaztagiria.

c) Laguntza emateko ebazpenean eskatzen den beste edozein agiri.

Aurkeztutako agiriak jaso eta aztertuta edo epe hori igarota, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak aginduko du diru-laguntza ordaintzea, eta hala behar denetan, minorazio bat egitea, likidatzeko ebazpen-proposamena egingo dio Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari, zeinari baitagokio ebazpena ematea bi hilabeteko epean justifikazioak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik aurrera.

3.– Ematen diren diru-laguntzak aldi bakarrean ordainduko dira, betiere egiaztatu eta gero diruz lagundutako jarduera burutu dela, eman den helbururako erabili dela eta haren kostuaren zenbatekoa zein den.

17. artikulua.– Ez-betetzeak.

Hauek izango dira ez-betetzeak:

a) Jasotako diru-laguntza osoa edo zati bat agindu honetan adierazitako jardueraz bestelakoe-tan erabiltzea.

b) Agindu honetan edo laguntza emateko ebazpenean adierazitako betebeharrak ez betetzea.

c) Hala badagokio, diru-laguntzaren likidazioa egiteko ebazpenean adierazitako zenbatekoa dagokion epean ez itzultzea.

d) Xedapen orokorretan nahitaez bete beharreko zat jotako beste edozer ez betetzea.

Ez-beteteren bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, betiere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegitzako Dekretuaren eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera (1/1997 Legegitzako Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena; 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horien itzulketei buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena).

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurkeztutako eskabideak aintzat hartuz, 2. artikuluan kontsignatutako zenbateko osoa aldatu ahal izango da, eskabide horien ebazpenak eman baino lehen eta aurrekontua badago, betiere.

Halakorik gertatuz gero, jakitera emanen da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako den Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazten dizu emandako zure datuak eta diru-laguntzen deialdi honetako eskabidean eta fitxategietan agertzen direnak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kultura Ondarearen Laguntzak eta Diru-laguntzak izeneko fitxategi batean –2006ko uztailaren 26ko Aginduan araututakoa– sartuko ditugula, zeinen helburua baita diru-laguntzen deialdi hau eta horrekin zerikusia duen bestelako administrazio-prozedura edo -espediente kudeatzea. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari lehendik eman zaio fitxategi horren berri, datuen segurtasun osoa bermatzeko segurtasun-neurriak ditu eta datu horiek ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legez agindutako kasuetan izan ezik.

Datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera, DPBLk berariaz aitortzen dituen datuak esku-ratu, zuzendu, ezeztatu eta aurkatu ahal izango dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzarekin harremanetan jarritik (Donostia 1; 01010 Vitoria-Gasteiz).

Deialdi honetan parte hartzen duten erakundeek baimena ematen diote Administrazioari emandako datuak konparatu eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiazta daitezen (Administrazio honen esku egon zein beste Administrazio Publiko batzuen esku egon), laguntzen onuradun izateko eskatutako baldintzak betetzen direla edo betetzen jarraitzen dela egiaztatzeko.

Halaber, jakinarazten zaizu emandako diru-laguntzak EHAAAn argitaratuko direla.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jar diezaioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari; horretarako, hilabeteko epea dute, agindu hau EHAAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, Agindu hau EHAAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 18a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

KALKULU-ERANSKINA

2014an irakurketa eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegi publikoen zerbitzuak erabiltzea sustatzeko diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko sistema (Formulak eta koefizienteak).

Haur eta gazteen (P) eta zuzentzaile-indizearen arteko homologazioa (IZ).

Biztanleak	P	IZ
1etik 100era	100	10
101etik 200era	200	6
201etik 300era	300	5
301etik 500era	500	3,5
501etik 1000ra	1000	2
1.001etik 2.000ra	2000	1,25
2.001etik 3.000ra	3000	1
3.001etik 5.000ra	5000	0,75
5.001etik 10.000ra	10.000	0,5
10.001etik 20.000ra	20.000	0,35
20.001etik 30.000ra	30.000	0,33
30.001etik 40.000ra	40.000	0,31
40.001etik 50.000ra	50.000	0,29
50.001etik 60.000ra	60.000	0,27

10.000naka jarraitzen du 10.000, bakoitzeko 0,02ko beheranzko C indizearekin.

Zenbatekoak zehazteko erabili beharreko formulak.

P: Biztanle-tarteentzako homologatutako biztanle-kopurua.

IZ: Zuzentzaile-indizea.

B: Biztanleak (P) eta Zuzentzaile-indizea (IZ) biderkatzearen ondorioa. ($B = P \cdot IZ$).

BB: Onuradun guztien B baloreen batuketa.

DK: Diru-baliabide erabilgarriak.

Eman beharreko pausuak:

1.– Onuradun bakoitzaren B balorea eskuratzea, hau da, faktore hauek biderkatzearen ondorioa: Homologatutako biztanleak (P) eta zuzentzaile-indizea (IZ).

$$(B = P \cdot IZ^*)$$

2.– B koefizienteen baturatik lortua (BB)

3.– Diru-laguntza kalkulatzea:

$$\text{Diru-laguntza: } DK \cdot B$$

Azkenik, aurkeztutako aurrekontuaren % 75 lagunduko delako diruz, ikusi beharko da erakunde onuradun bakoitzari dagokion zenbatekoak beste zenbateko hori gainditzen duen. Hala balitz, soberakina itzuli egingo da gainerako erakunde onuradunen artean banatzeko.